

# Askatasuna eta mugak



**ANE ABLANEDO LARRION**  
IRAKASLEA

ANTTON OLARIAGA

**G**izakiok libre ote garen, edo hala sentitzen ote garen, erantzuten zailak diren galdera handi eta konplexu horietako bat da, ñabardurarik gabeko jarrera irmorik erraz onartzen ez duten horietakoa. Nik behintzat hala uste dut, iruditzen zaidalako berdin defenda nezakeela baiezkoa nola ezezkoa, bi iritziak direlako nolabait egia, eta biek erakusten dutelako askatasunaz izan ohi dugun pertzepzio unibertsalaren alderdi erreal bat. Nondik begiratzen den. Eta txanponaren zer alderdik hartzen duen une bakoitzean nagusitasuna: gure errealitate beti mugatuegiaren pisuak, ala errealitate hori gainditzeko ala onartzeko egiten dugun hauu librearen kontzientziak.

Egia da bizi garen mundua ez dela askatasunaren oso sustatzailea. Eta nekez sentitu gaitzkeela libre pertsonen beharrak ukatzen dituen gizarte autoritarioan, edo giza eskubide oinarritzkoak urratuak diren errealitate baten baitan, argi dago. Hala ere, ez dut uste gizakion funtsezko askatasuna ukatzen duenik horrek, baldintzarik okerrenetan ere badugulako aske sentitzeko nolabaiteko ahalmena, geure buruaren jabe izaten segitzekoa, barnetik bederen.

Egia da nork bere errealitatean eragiteko aukera edukitzea dela askatasuna sentitu ahal izateko baldintza minimoa. Baina hori falta den egoera muturrenekoan ere, errealitate horren kontzientzia garbia edukitzen jakitea bilaka daiteke, bere xumean, askapenerako giltza.

Askatasunak gure bizitzan duen presentzia neurtu ahal izateko, dena den, kontzeptuari ematen diogun adiera berrikusi beharko genuke lehenik, beti nahi duguna egin ahal izatearekin identifikatu ohi dugulako libre izatearen esanahia. Eta interpretazio horren arabera, beti izango baita txikia edozein kalkuluren emaitza. Askatasuna eta mugagabetasunaren artean parekotasuna egitea dago ere gure gizartearen nagusi den haurkeriaren iturburuan, kondenuatu egiten gaituelako inoiz aske sentitu ezin izatera, beti biktima sentitzera, eta arduragabekeriara. Gure zorritxarrerako, ospe txarra hartu dute gurean muga guziak.

Kontua da existitu egiten direla. Mendira igotzeko nire nahia, akidura xume batek eragozten ahal duelako. Munduko klasiko guzi guziak irakurtzeko nire balizko desioa, bizitzan horretarako aski denbora ez izateak. Edo gustuko gizo-

narekin ibili nahi izatea, nirekiko bere gogo ezak. Horrela, besterik gabe. Zer eginen diogu. Haragizkoak garelako, eta hilkorrek, eta sozialak. Eta ezugarri horiek modu erabat naturalean inposatzen digutelako izaki mugatuaren halabeharra. Horrek ez du, baina, gure askatasuna eragozten. Ez, behintzat, printzipioz. Gure nahiak moldarazten dizkigu, hori bai. Baina gauzatu ahal izan ditzagun, hain zuzen ere. Asko poz-tuko nintzateke esaten ari naizena begi-bistakoa dela irudituko balitzaizue, edo artikulua hau soberaxkoa dela pentsatuko bazenute. Zoritxarrez, ordea, gehiegitan sentitzen dut gaia oraindik ebazteko dagoela. Hurrei eskaintzen zaizkien ekosistema ustez aske batzuen nolakotasuna ikusten dudanean, batez ere. Direktibo izango ote garen beldurrez, muga guziak erauzi dizkiogu heziketari. Eta haurrak kondizionatu ditza-kegulako-aitzakian, helduaren iritzi eta erreferentzia guziak desagerrarazi. Autoritario ez izateko, autoritate izateari utzi egin diogu helduok eta, zer nahi duzue esatea, haurrak bakarrik uzten ari garela iruditzen zait niri askotan. Maiteok, buelta bat eman behar diogu askatasunaren gaiari. Benetan. ●